



Eider Elizegik bigarren liburua argitaratu du

Eider Elizegi herritarrek bigarren liburua kaleratu berri du "El hilo gris" eskaladari buruzko hitz eta argazkiekin. Honetan harkaitzei eman nahi izan die protagonismoa mendizaleak, haizten edertasunari. Argazkiak eta testuak uztartuz osatu duen lana aste honetan bertan aurkeztuko du Donostian. / 5. orrialdea



Donostiako Ondarreta hondartzako proban, Telleriak gidatu zuen "Ibio" zaldia (4) hirugarren izan zen eta Martinezek gidatu zuen "Estai" (3) behorra irabazle.

Telleriaren zaldia jaun eta jabe

Pepenea baserriko Xanti Telleriaren zaldiek lehen eta hirugarren postuak eskuratu zituzten Donostiako Ondarreta hondartzan igande

goizean antolaturiko zaldi lasterketan. 700 metro inguru neurtzen zituen zirkuituari hiru itzuli eman behar izan zizkieten parte-hartu zuten 12

zaldiek eta sei onenak pasa ziren finalera.

Bi lasarteoriatar izan ziren finalean Joxe Manuel Martinez eta Xanti Telleria bera. Lehe-

nengoak irabazi zuen zaldi lasterketa Telleriaren "Estai" behorarekin eta hau hirugarren iritsi zen "Ibio" zaldiaren gainean. / 4. orrialdea

Ostadar, bikain, igoera fasean

Larunbat arratsaldean egularaldi petralarekin jokatu zen Michelingo berdegunean 1. Erregionalen igoera faseko 3. jardunaldiari zegokion Ostadar eta Urnietaren arteko norgehiagoka. Partidu gogor eta borrokatu baten ostean, etxeokoa izan ziren nagusi Ander Zulaika eta Mikel Begiristain jokalariek bigarren zatian sartutako gol banari esker. Azkenean, 2-1eko emaitzarekin amaitu zen partidua eta oraingoz, laugarren postuan kokatu da herriko taldea. Hurrengo astean, Beasainen aurka jokatu beharko du etxetik kanpo. •



Ostadarrek defentsan gogor lan egin ostean, sorturiko aukerak ezin hobeto baliatu zituen bigarren garaipena jarraian eskuratzeko.

ALBISTEA / 2

"Zuk esan!" bloga jarri du martxan Udalak

ALBISTEA / 3

Kontsumo ohiturak aldatzeko ekimen berriak jarri ditu abian Sanmarkok

KIROLA / 6

Mario Garrido LOKEko judoka Gipuzkoako txapeldun Hernanin



ZURE ETORKIZUNA DISEINATU NAHI DUZU?

MATRIKULA ZABALIK
urtarrilak 30 - otsailak 10

Presentación de María
Otsailak 1, 18:00etan
Informazio bilera
943 551 782
presentacion-urnieta.com

Salesiarrak
943 551 789
salesianosurnieta.com

Urtarrilak 28, 11:00etan
Informazio bilera

'Zuk Esan!' bloga abian jarri du Udalak

- Udalarekin harremanetan euskararen ikuspegitik herritarrek dituzten proposamenak jasoko dira
- Iritzi, kezka, arazo edota eragozpenak Udalari helarazteko aukera dute, beraz, lasarteoriatarrek

Buruntzaldea.org eskualdeko euskara eta kirol zerbitzuen web orrialdeari 'Zuk Esan!' izeneko bloga gehitu diote, herritarrekin harremana sendotzeko eta hauen iritzia ezagutzeko helburuarekin. Euskararen aldetik Udalaren eskaintza eta jokabideari buruz herritarrek duten ikuspegia ezagutu nahi dute eta hauen iritzia eskatu dute blogaren bidez: 'Esan, esan, zure esanetara gaude eta' dio Lasarte-Oriako Udalak.

Jon ALTUNA IZA

Herritarrek aukera izango dute beraz "Zuk Esan!" blogean euskararen erabileraren inguruan dituzten proposamenak, kezka eta arazoak Udal arduraduneri jakinarazteko. Lasarte-Oriako euskara zerbitzuak jarri du martxan egitasmoa eskualdeko beste zerbitzuekin batera, bi helburuarekin: batetik egiten duten lanari buruz herritarrek duten iritzia ezagutu eta gero zeregin hori hobetzeko, eta bestetik, zerbitzu horien eskaintza zabaldu eta martxan diren egitasmoak herritarrei ezagutarazteko, erabiltzeko modua ere izan dezaten.

Pablo Barrio alkateak adierazi duenez, legealdi hasieratik esan dutenarekin, "herriari leihoak irekitzearekin" alegia, bat egiten du egitasmoak: "beste leiho bat da kaleko iritzi eta proposamenak jasotzeko, beste bide lagungarri eta beharrezkoa. Lan tresna garrantzitsu bezala ikusten dugu".

Boris Nogales Euskara, Hezkuntza eta Kultura arloko zinegotziak ere antzeko iritzia dauka: "Buruntzaldea.org orrian lekutxo bat dute herritarrek euren proposamenak egiteko. Erabilgarria izango da, iritzi horiek kontutan izango ditugu eta lagungarri izango dira".



Pablo Barrio, alkatea, eta Boris Nogales, kultura eta euskara zinegotzia, erregistroan elkartu ziren "Zuk Esan!" bloga aurkezteko.

Udaleko arduradunek uste dute herritarrek izango dutela euskararen ikuspegitik egiten den lanaren inguruan zer kontatua, eta argi dute, informazio hori, herritarren esperientziaren berri izatea eta jakitea, alegia, lagungarri izango dela

gero Udalak jardun egokia eskaini dezan: "Izugarri lagunduko digu euskararen erabileran Udalak hobetzeko dituen alderdiak ezagutzen. Eta beste aukera bat ere emango digu blogak: euskarazko udal zerbitzuak ezagutzera ematea eta erabil ditzaten animatzea".

Dena den, abenduan bloga martxan jarri ondoren, Udalak informazio bilketan paper

aktiboa hartu eta gune konkretuetara jo du, euskaltegieta esaterako, euskara ikasten ari diren iritzi ezagutzeko. Blog sortu berria ikasle hauek probatuko dute beraz. Gainera Udaletxeko langileen iritzia ere jaso du Euskara zerbitzuak.

"Zuk Esan!" blogaren bidez, Udalarekin euskararen inguruan herritarrek izandako esperientziak jaso nahi dituzte:

"aukera izango duzue, zuen bizipenak kontatzeko, proposamenak egiteko, kexak adierazteko... Betiere, kontuan hartu hizkuntzaren ingurukoak izan beharko dutela. Esaterako: udal zerbitzuren batera joan zaren batean sentitu al duzu zure hizkuntza eskubideak urratuak izan direla? Udal langileari euskaraz zuzendu eta berak gaztelaniaz erantzun al dizu? Gertatu al zaizu euskaraz jaso duzun informazioa ulergarria ez izatea? Zer egin duzu horrelakotan? Ekimen honek gure zerbitzua hobetzen lagunduko digulakoan, bertan parte hartzea animatu nahi zaituztegu!".

<http://euskara.buruntzaldea.org/euskara/zuretzat-bereziki/zuk-esan/> helbidean eskaintzen da aukera hori. •

Udaletxeko langileen iritzia blogean

Lasarte-Oriako Udaletxean Ljendaurrean lanean aritzen diren langileen iritzia jaso dute jada "euskarak eta gaztelaniak zein leku eta zein tratamendu duten jakiteko asmotan": herritarrekin duten harreman horri buruz, ekarpen eta adibideak ikus daitezke blogean.

Behin langileen iritzia jasota, Udalak gonbidapena luzatu die herritarrei gaiaren inguruan duten iritzia emateko. Langileek zein herritarrek duten jarrera, izan dituzten esperientzia on eta txarrak, herritarrek hizkuntza kontuetan duten zorrotasuna... denetarik galdetu zaie Udal langileei eta hizkuntzaren erabilera zorrotzari buruz emandako erantzun

nean, gaztelaniazko zatiak seguritatea ematen diela nabari dut. Euskaraz dakienak ere askotan gaztelaniaz betetzen ditu eskaera orriak. Ematen du euskaldunek gaztelaniaren beharra dugula udaletxearekin harremanetan jartzeko" dio langileak.

Interesgarria jotzen du beraz Lasarte-Oriako Udalak herritarrek zenbait konturi buruz zer iritzi duten jakitea, esaterako, administrazioak euskalduneri idatziak euskaraz bakarrik bidaltzeari buruz: "Herritar euskalduneri galdetu egin beharko lieke ala zuzenean euskaraz bidali? Prest al zaude idatziak euskaraz jasotzeko?". •

Blog horren bidez, Udalean izandako esperientzien berri emateko aukera izango duzue... Kontuan hartu hizkuntzaren ingurukoak izan beharko dutela

Esate baterako, hizkuntza eskubideekin... Zuk, euskaraz nahi duzuenean adierazten al duzu? Izan al duzu eragozpenik? Esan, esan...

Kontsumo ohiturak aldatu eta hondakinak murrizteko ekimenak

Sanmarko mankomunitateak hiru ekintza egingo ditu helburua lortzeko

Sanmarko mankomunitateak hiru ekimen jarri ditu martxan Aste Santura bitartean. Honakoak hamar udalerrietan sortzen diren hondakinak murrizteko helburua dute eta Lasarte-Oria da horietako bat.

Etxeetan sortzen ditugun hondakinen kantitatea murrizteko ekintza hirukoitza prestatu du Sanmarko mankomunitateak hamar udalerrietan.

Lasarte-Oria dago horien artean eta Aste Santura bitartean, biztanleriaren hiru mailatan burutuko ditu ekintza ezberdinak.

Lehena ohi bezala eskolatan egingo da "Murriztu Zirt edo Zart" deiturikoa, bigarrena etxeetan "Eko Shopper" eta hirugarrena herritar guztien parte-hartzea sustatzeko helburua duena, Bigarren eskuko produktuen azoka "merka2sanmarcos" da.

Ekimen hauek Mankomunitateak hondakin gutxiago sortzeko duela hamarkada bat baino gehiago hasitako sensibilizazio eta kontzientziazio kanpainaren baitan kokatzen dira eta helburua kontzientziaziotik ekintzara jotzea da.

Ikastetxeetako jarduerak jolasen bidez garatuko da gela ezberdinetan. Jolas eta dinamika hauen helburua ikasleek hondakin gutxiago sortzeak duen garrantzia ikustea da baita hondakin hauek sortzen dituzten arazoak ezagutzea ere. Hiri-hondakinen



Las Dorre parkean eta Brigidatarren plaza inguruan jarri zen bigarren eskuko produktuen azoka, aurtien Okendon izango da.

gaineko ezagutzak hedatuko dira prebentzioan arreta berezia jarriz.

Erosketa-aholkularia

Aurtengo berritasuna "Eko Shopper" ekimena da. Jendea erosteketa egiten lagunduko dion aholkulariaren figuraren oinarritzen dena.

Honen lana erosketetan jasagarritasun irizpideak aplikatzen laguntzea izango da etxeetan ere ahalik eta hondakin gutxien sortzeko helburuarekin.

Honako ekintza otsailean

burutuko da eta parte hartuko duten familia boluntarioak bilatzen ari dira. Proiektuan 100 etxeko parte hartzea nahi dute Mankomunitatetik.

Dagoeneko izena eman daiteke otsailaren 5a bitartean 943 670 249 telefonoan, www.sanmarko.net web gunean dagoen formularioa beteaz edota Urbil merkataritza gunean urtarrilaren 27an 16:00etatik 22:00ora jarriko den informazio gunean.

Gainera, parte-hartzeagatik erosketa-orga bat emango da opari.

Bigarren eskuko merkatua

Azkenik, martxoaren 17an herrian egingo da merka2sanmarcos, bigarren eskuko produktuen azoka handia.

Honako Okendo plazan kokatuko da eta eguraldi txarra egitekotan Loidibarreko pilotalekuan jartzea aurreikusita dute antolatzaileek.

Mankomunitatetik herritarrek ekimen hauetan parte-hartzea animatu nahi dituzte hondakinak murrizteko posible dela eta guztien lana dela azpimarratuz. •

IKASTETXEAK

Aurrematrikula garaia herriko eskolatan

Urtarrilaren 30ean ikastetxeetan 2012-2013 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea zabalduko da.

Horregatik, ikastetxeek ikasle berrien gurasoekin bilera informatiboak egin nahi dituzte.

Landaberri Ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendaritza taldeak urtarrilak 26an, arratsaldeko 15:15etan Garaikoetxeako eraikineko Soinketa aretoan egingo du.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxean, berriz, Zumaburuko egoitzan izango da bilera otsailaren 1ean, 17:00etan.

Gurasoek otsailaren 10a arte izango dute aukera matrikula egiteko. •

INAUTERIAK

Euskal Inauterietako konpartsa lanean

Inauterietarako hilabete baino gutxiago geratzen da eta Euskal Inauterietako Konpartsak entseguak hasi ditu inauterietako igandearako, otsailaren 19rako gutzira prest egon dadin.

Entseguak astearte eta ostegunetan dira arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara Landaberri BHIren egoitzan eta antolatzaileek herritarrek parte hartzeko gonbitea egingo dute. •

KULTURA

"Ogro Txikia" antzerkirako sarreraren zozketa

Lasarte-Oriako Udaleko kultura sailak Manuel Lekuona kultur-etxean urtarrilaren 28an izango den "Ogro Txikia" haur antzerkirako sarreraren zozketatuko dituela gogoratzen du.

Izan ere, hileroko kultura sailak Manuel Lekuona kultur-etxeako ekitaldietarako bi sarrera bikoitz zozketatuko ditu. Zozketa hauetan parte hartu ahal izateko Lasarte-OriaSarean.eu web gunean harpidetuta egon behar da. Udalak kudeatzen duen web gunean harpidetza egitea doakoa da.

"Ogro txikia" antzerki sarreraren zozketa urtarrilaren 25ean burutuko da eta emaila zozketa elektronikoki bidez jakinaraziko zaie parte-hartzaileei. •

Txintxarri hobetzeko proposamenak

Txintxarri otsailaren 13an 1000. zenbakia kaleratuko du eta orain artean bezala Lasarte-Oriari buruzko informazio oso eta interesgarria zabaltzeko helburuari utsiz, aldizkarian aldaketa batzuek egin nahi ditugu, 1000. alearen mugarrira iristen garenez.

Berrikuntzak egiteko, noski, irakurleen iritzia, proposamenak eta gomendioak jasotzea gustatuko litzaiguke.

Proposamenak

1993ko urriaren 1ean lehen Txintxarria kaleratu zenetik, hemeretzi urte hauetan, izan dira lehen ere aldaketak, itxura aldetik batez ere, esaterako aldizkari euskarririk egunkari

euskarrira aldatu zenekoa.

Orain, irakurleek egoki ikusten badituzte atal eta eduki berriak sortuko ditugu, aldaketa sakonak egin, baina horretarako Txintxarri egiten dugunontzat oinarritzakoa da zuen ekarpenak jasotzea.

Irakurleen esanetara gaude, Txintxarri aldizkaria eta www.txintxarri.info web-gunea hobetzeko lotsarik gabe luzatu zuen proposamenak.

Web orrialdeak ibilbide motzagoa badu ere, berrikuntzak izango ditu. Animatu eta bidali zuen iritzia eta proposamenak txintxarri@ttakun.com edo txintxarri@txintxarri.com helbideetara. •



Pepeneko zaldiak nagusi Ondarretan

■ "Estai" behorrak irabazi zuen proba eta "Ibio" zaldia hirugarren izan zen ■ Xanti Telleria lasarteoriatarrek prestatzen ditu Zabaleta auzoan ■ Aste Santura arte atsedean hartuko dute

Jon ALTUNA EGITEGI

Joxe Manuel Martinez eta Xanti Telleria herriko jockey-ek lehen eta hirugarren postuak eskuratu zituzten hurrenez hurren Donostiako Ondarreta hondartzan igande goizean antolaturiko zaldi lasterketan.

Eguna petral xamar esnatu bazen ere, eguerdian errespetatu egin zituen lasterkariak eta jende andana bertaratu zen animalia polit hauek bertatik bertara ikusi ahal izateko.

Itsasbehera aprobetxatuz, hondartzan 700 metro inguru neurtzen zituen zirkuituari hiru itzuli eman behar izan zizkieten parte-hartzaile guztiek. Guztira, hamabi zaldi lehiatu ziren, bi txandatan banatuta, eta txanda bakoitzeko hiru onenek finalerako txartela eskuratzen zuten.

Lasarteoriatarrek ez zuten aparteko arazorik eduki sailkatu ahal izateko eta finalean argi geratu zen maila onean daudela bai zaldiak baita jockeyak ere.

Xanti Telleriaren "Estai" behorrak irabazi zuen urrezko domina eta "Ibio" zaldia berriz, hirugarren izan zen Donostiako paraje zoragarrian jokatu zuten finalean.

Aste Santura arte

Egindako lan bikainaren ostean, atsedean hartuko dute "Estai" eta "Ibio" odol-garbiek. Hurrengo zitak Lekeitio eta Zumaiako hondartzetan izango dituzte, baina ez Aste Santura arte.

Beraz, denbora dute indarberritu eta udaberriko denboraldiari gogoz ekiteko. Gero, udaran, belarretan arituko dira eta bitartean, Xanti Telleriak Pepene baserrian zainduko ditu tentuz. •



Ezkerrean, Joxe Manuel Martinez jockey-a "Estai" behorraren gainean eta eskubian berriz, Xanti Telleria "Ibio" zaldiarekin proba hasi aurreko momentuetan.



Joxe Manuel Martinez pozarren, proba amaitu ostean.



Sailkatze froga eta finalaren artean zaldiak paseatu behar izaten dira indarberritzeko.

AZKEN MUGA TABERNA

Goizeko 07:00etan
irekitzen dugu!

Gosarietan prezio bereziak!

Beko bidea 2 behe • Lasarte-Oria

Berriz irekita nagusi berriekin

Eider Elizegi Mendizale eta idazlea

“Eskalatzean, haitzaren edertasunari ia ez dio inork erreparatzen”

Ostiralean 19:00etan aurkeztuko du mendizaleak “El hilo gris” liburua Donostiako Elkar aretoan

Eider Elizegi herritarrak bigarren liburua kaleratu berri du ‘El hilo gris’. Honetan harkaitzei eman nahi izan die protagonismoa mendizaleak, haitzen edertasunari. Argazkiak eta testuak uztartzu osatu du lana eta hau aurkezteko laister aparkatuko du bere furgoneta Lasarte-Orian.

Maider AZURMENDI

Eider Elizegik eskalatzeko modua aldatu zuen duela hiru urte. Orduan argazki kamara arnesetik zintzilikatu zuen orain liburua osatzen duten argazkiak ateratzeko asmotan. Emaitzarekin pozik da eta liburuz gain, argazki erakusketa ere prestatu du.

Bigarren liburu “El hilo gris” honetan argazkiak eta testuak biltzen dituzu. Lehenengo liburuekin alderatuz oso desberdina da. Zergatik?

Bai, desberdina da, hasteko formato aldetik, bigarren honetan argazkiek duten garrantziagatik eta testuak laburragoak direlako. Noski, gaia ere desberdina da, eskalada kasu honetan. Lehenengo liburua urdina zela esango nuke; bigarren hau berriz laranja kolorekoa da.

Baina bada bietan nagusi den zerbait: biak oinarritzen dira bizigabea den zerbaitetan, edo hori izan da asmoa, behintzat. Ez dakit lortu nuen, baina “Mi Montaña”-n Mendiak berak izan nahi zuen protagonista. “El hilo gris”-en, arrokak daude lehen planoan.

Haitzen edertasuna erakutsi nahi izan duzu. Hain bereziak al dira?

Eskaladak nire bizitzaren zati bat betetzen du orain, bai.

Baina alde deportibotik baino, alde estetikitik begiratzen diot kirol honi.

Bai, oso dira bereziak harkaitzak, inguruan dauzkagun gauza gehienak bezala. Baina gehienetan ez diegu gauza bizigabeei arretarik eskaintzen: eskaladaren munduan, argazki, liburu, testu, aldizkari... guztiak, gizakiaren meritoan zentratzen dira: zailtasunean, markan, teknikan; baina eskalatzeko dugun bitartean zeharkatzen dugun haitzaren edertasunean ia ez du inork erreparatzen. Hori da, aldiz, “El hilo gris”-ek eskaintzen duen begirada.

Argazkien artean zein da gehien gustatzen zaizuna?

Ez naiz gai sentitzen argazki bakar bat aukeratzeko. Urte eta leku askotan ateratako argazkiak osatua dago liburua eta bat aukeratzeko ezinezkoa egiten zait.

Liburua egiteko garaian ere ez nintzen gai izan nituen milaka argazkien artean 70 bakarrik aukeratzeko. Liburuaren diseinua eta maketazioa Rebekak, nere ahizpak egin ditu, Alehop, bere diseinu estudiotik. Bera izan zen argazkiak aukeratzeko lagundu zidana.

Argazki liburua dela esango al zenuke?

Argazkien aldetik, harkaitzek berengan margotu dituzten



margolanen katalogo bat dela esango nuke. Testuak berriz, eskalatzeko dugun bitartean sentitu daitezkeen sentsazio txiki posible batzuen bilduma.

Argazki erakusketa bat ere bada...

Bai. Esan bezala, material asko bidu dut liburua buruan nuela eskalatzeko pasa ditudan azken urte hauetan. Horregatik, liburutik at geratu den materialaren zati bat argazki erakusketa txiki batean bilakatu da.

“El hilo gris” albumean, topa daiteke irudi sorta: www.flickr.com/photos/vagamontanyas/

Eskalatzailerak ez direnzentzat, zer dago liburua honetan?

Arroketan bilatzea espero ez duen irudi sorta eder bat. Pintura katalogo bat da eta kirol honetan aritzeko arrazoiak batzuk. Begiekin bakarrik ez, azalaren bitartez irakur daitezkeen liburua da; aire librea,

haitzaren testura eta koloreak, anasa hartzearen poza dastatu ahal izango dituz irakurleak.

Zergatik “El hilo gris” izena?

Hasiera batean proiektuari beste izen bat jarri nion. Liburuaren bada atal bat eskaladabideen izenei buruz hitzegiten duena. Orri horretan, “el hilo gris” deitzen den Araotzeko bide baten argazkia azaltzen da. Liburua diseinatzen ari zirela, Victorri (Rebekaren kidea), argazkia ikusi zuenean, izenburu hori bestea baino egokiagoa iruditu zitzaion, abstraktuagoa, liburuaren bertsio berria hartzen ari zen kolorearekin adostasun gehiago zuena eta hala geratu zuen.

Hurrengo proiektua zein izango den buruan al duzu?

Proiektuak bai, ugari. Baina horietatik osotasuna duen zerbait sortu, borobildu eta batez ere argitaratu ahal izatea, alde handia dago!

“Vagamontañas” bloga zure egunkari pertsonala dela esan daiteke. Zergatik hasi zinen gogoetak sarean jartzeko?

Bai nire egunkari pertsonala da. Andeetara sei hilabetez joan nintzenean hasi nuen bloga. Ordurarte ez nuen inoiz niretzako idazten ohi nuen publiko egin edo konpartitu. Behin pausoa emanda asko gustatu zitzaidan sentsazioa. Itzuli nintzenean nolabait bidaiatzen jarraitu nuen furgonetarekin alde batetik bestera eta baita idazten ere.

Oso atsegina da blogaren bitartez jendearekin harrimantetan egotea eta bizi ditudan esperientzia eta gogoetak beraiekin elkarbanatzea. Bestalde, sortzen dudana materiala ordenatzeko ere aitzaki ona da bloga.

Non zaude momentu honetan? Euskal Herritik urrun?

Bai, urrun, Pirinioen beste muturrean. Azken urte hauetan daramadan bizimoduaren oinarrietako bat horixe da, lurrik ez duela mugarik eza gutzen eta furgoneta aparkatzen dudana lekuan, etxean nagoela sentitzen dut.

Nondik mugituko zara negu honetan? Proiektu finkorik ba al duzu?

Momentu honetan mendi tartean aurkitu dudana kabitzeko batean nago, proiektu desberdinei forma ematen. Baina nire furgoneta ez dago geldirik.

Ez dut luzera planik egin, datorren astean Donostia-ra noa liburuaren aurkezpena egitera eta gero ikusiko dugu!•

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzua Etxeko txorizoa

Tripakiak- Salfxitxak Basurde burua

Txistorra Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren Kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

Garrido, judoka, Gipuzkoako txapeldun

LOKEko judoek bost domina eskuratu zituzten junior mailako herrialdeko lehiaketan

Asteburu mugitua izan zuten LOKEko judo saileko gazteek lehengo asteburuan. Larunbatean Madrilen egon ziren Liga Nazionalean lehiatzen eta igande goizean Hernanin junior mailako Gipuzkoako txapelketan. Hala ere, bidaiak ez ziren kalte egin eta Gipuzkoako txapela eta lau domina gehiago lortu zituzten lehiaketan.

Nerea EIZAGIRRE

Urtarrilaren 15ean, igandearen Hernaniko kiroldegian Gipuzkoako junior txapelketan LOKEko 5 gazteek parte hartu eta bostek domina eskuratu zuten, urrezko bat, hiru zilarrezko eta hirugarren postu bat. Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "talde bezala, oso pozik bukatu genuen".

Mario Garrido 73 kilo azpiko mailan irabazle izan zen. Entrenatzaileak aipatu duenez, "bere pisuan nagusitasun handiarekin irabazi zuen" eta ondorioz, Gipuzkoako txapeldun berria da.

Era berean, Josu Olmos, Esteban Martinez eta Amaia Curiel izan ziren zilarrezko dominak eskuratu zituztenak.

Gorka Aristegiren hitzetan,

Esteban eta Josu ederki ibili ziren haien borroketan eta Amaiak "oso txapelketa polita egin zuen".

Brontzezko domina, Oscar Garridok eskuratu zuen, 90 kilo azpiko mailan. Baina etorkizun handiko judoka da Aristegiren ustez, "oraindik kadetea da eta".

Infantilak sailkatuak

Gipuzkoako txapelketaren ostean, infantil mailako eskolarteko jardunaldia izan zen Hernaniko kiroldegian bertan. Honetan, Gipuzkoako txapelketarako sailkapena zegoen jokoan.

Bertan parte hartu zuten judoketik, azpimarragarria da Jone Arroyok eskuratutako hirugarren postua.

Baina Arroyoz gain, Mikel Lasas, Haritz Urdangarin eta



Judoka izateaz gain patinatzaile artistikoa ere bada Mario Garrido.

biko Ama Guadalupekoa taldearekin Espainiako Ligako lehengo jardunaldian parte hartu zuten, Villaviciosa de Odonen.

Txapelketa honetara hiru talde erman zituen hondarribiko taldeak, nagusien III. mailakoa, juniorra eta emakumezkoa. Guztira 18 talderen aurka lehiatu ziren eta aipagarri da 17 norgehiagoka irabazi zituztela.

Esteban Martinez bikain

Lehiaketan nabarmenena Esteban Martinezek egin beharreko lana izan zen. Junior eta nagusien mailan parte hartu behar izan zuen LOKEko gazteak, beste judoka baten lesioagatik eta guztira hamaika borroka egin zituen.

Mario Garrido ere junior mailan aritu zen eta taldeak lehengo postua eskuratu zuen. Nagusien mailako taldeak ere lehenengo jardunaldi honetan garaile izan zen.

Era berean, Amaia Curiel herritarrek eta Ama Guadalupeko talde neskek laugarren postua eskuratu zuten bere mailan. •

Jorge Revuelta judoek ere finalerako txartela eskuratu dutela aipatu digu Aristegi entrenatzaileak.

Liga Nazionala

Bestalde, larunbatean Mario Garrido, Esteban Martinezek eta Amaia Curielek Hondarri-



Udaberri txapelketako bigarren jardunaldia burutu zuten larunbatean Michelinen. Irudian, Haritz Solano kadetea pilota astintzen.

Intzako pilotariak asteburu borobila osatu dute

Intzako asteburuan galdutako partidua bakarrik, alebinez jokaturikoa izan zen. Oiarpean aurka 8-16 galdu zuen Jon Irisate eta Alex Etxeberriak osatutako bikoteak. Infantil mailan aldiz, 18-12 irabazi zuten Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasola herritarrek Hernaniren aurka jokaturiko norgehiagoka.

Udaberri txapelketa

Udaberri sariari dagokionez, bigarren jardunaldiak berri onak ekarri zituen herritarren-

tzat. Kadeteen kasuan, partidua txukuna jokatu zuen Xabi Prieto eta Haritz Solanok osaturiko bikoteak Gailurrerantzen aurka. Norgehiagoka osoan izan zen aurretik herriko bikotea eta partidua itxia kostatu bazitzairen ere, 22-16 gailendu ziren azkenean.

Nagusiek berriz, partidua erabat menderatu zuten hasi eta buka. Horrela, Aitor Aramburu eta Mikel Elolak osaturiko bikoteak erraztasunez gailendu zuen Beloki pilota elkarteak, 22-14ko emaitzaz. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

NAROA ARABIOTORRE artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **urtarrila osoan zehar**.



Ostirala, 27

Kontzertua

Añogako BI "N" BI taldea gaztearen rock doinuak entzungo dira. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan**



Erbestetik bueltan

Okendo Zinema taldearen eskutik, CIRKUS COLUMBIA filma eskainiko da. Alemanian erbesteratuta bizi ondoren, Bosnia eta Hertzeogovinako Butnic herrira bueltatuko den gazte baten istorioa kontatzen du Tanovic-ek. Gaztea neska-lagun gazte eta erakargarriekin eta diru mordoarekin bueltatuko da jaioterrira, bertako egoera politikoa momenturik latzean dagoenean.

**OSTEGUNA 26
21:30EAN**
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
SARRERA, 4,40 EURO. GAZTELANIAZ

Igandea, 29

Zinea

"WINX CLUB, LA AVENTURA MÁGICA" marrazki bizidunetako filma HAURRENTZAKO ZINEA atalean. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan**, GAZTELANIAZ. **Sarrera 3,40 euro**.



Larunbata, 28

Metal gaua

Oiartzungo HIRA eta Usurbilgo MENDEKU ITXUA taldeen eskutik rock eta heavy metal emanaldia, metal gauaren barruan. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan**.

Haurrentzako antzerkia

OGRO TXIKIA lana ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan**, EUSKARAZ. **Sarrera on-line 3 euro, egunean bertan 3,40 euro**.



Zinea

HELDUENTZAKO ZINEA atalaren baitan CIRKUS COLUMBIA filma ikusteko aukera. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:30ean**. GAZTELANIAZ. **Sarrera 5,50 euro**.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtekoa
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 10:45era



Logo Lehiaketa

Kukuka antzerki eta dantza eskolako logoa aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du elkarte honek.

Parte hartu nahi duen pertsona orori irekia dago, baina gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztu behar ditu. Hauek diseinu grafikoan ohizkoak diren programetan eginak izan behar dira. Eta nahi izanez gero, azalpen labor bat ere aurkeztu daiteke.

Lanak DIN A-4ko kartazal batean aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira: izen-abizenak, helbidea elektronikoa eta telefonoa.

Lanak Lasarte Oriako kultur-etxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.

Oharrak

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren ohorezko meza ospatuko da urtarrilaren 24an, asteartean, arratsaldeko 17:00etan.

Etxeraten elkarretaratzea

Hileroko azken ostiralero bezala, urtarrilaren 27an Lasarte-Oriako Etxeratak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odola ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Anima zaitezte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Zabaletatik Txuri-urdinera

Urtarrilaren 28an, larunbata, Zabaleta auzoko haurrak Txuri-urdinera joango dira patinatzeraz. Auzoko plazatik

goizeko 10etan aterako dira eta gero, eguerdian Babarrun jana egingo dute auzotarrek Xirimiri elkartearen.

Joan nahi dutenek auzoko dendan eman beharko dute izena. Bazkarirako izena emateko epea hilaren 26an ostegunean itxiko da. Bietara joatea ez da derrigorrezkoa.

1961ean jaiotako enafaria

1961 urtean jaiotako herritarrek Txartel Txoko jatetxean afaria antolatu dute otsailak 11ean, 21:00etan.

Afariaren prezioa 30 eurokoa da eta ordainketa aurretik egin behar da honako kontu korrante zenbakian, 2101 0092 15 0012963252 (Marta Garcia Ortiz). Izena emateko azken eguna otsailaren 6a izango da.

Gazteburuan Txuri-urdinera

Gazte klubeko gaztetxoak otsailaren 4an arratsalde Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregira txangoa izango dute. Prezioa 10 eurokoa izango da Ttakuneko bazkitdeentzat, eta bazkide ez dire-

nek 12 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea bulegoan edo telefonoz egin daiteke. Ordainketa bulegoan, Internet bidez edo Kutxan 2101 0048 25 0010089696 zenbakian egingo da.

Azken bi kasuetan, ordainagiriaren kopia bat aurkeztu behar da Ttakun kultur elkartearen edo aisia@ttakun.com helbidera bidali beharko litzaiteke.

Ostadar SKT-ko zozketa

Ostadar SKT-ak urtero "El Niño"ko loteriaren batera nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburua pasazozketatzen du eta aurtengo zenbakia irabazlea 71.208 izan da. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulogora deitu behar du saria eskuratzeko.

Gasolina merkeago Aterpea-rekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordainketa egiteko garaian, %2ko beherapena

izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Galdutako gauzak

Santo Tomasetan zapi bat aurkitu da eta amantala Olentzerro egunean.

Jabeak aisia@ttakun.com helbidean edota 943 371448 telefono zenbakian eska dezakete.

Irakokizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko irakokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Ildatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo irakokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Errugbi eskola, Banda Basottirekin

Beltzak-Ostadar-Jalai eskolako kideek talde erromatarraren disko berrian parte hartu dute

Errugbian jokatzearaz gain, Beltzak-Ostadar taldeko kideek beste hainbat ekintza eramaten dituzte aurrera urtean zehar: Aldatzekua tabernan errugbi partidak ikusi, hainbat tokitara bidaiak,... Bidaietan, hainbat lagun egin dituzte, eta horietako batzuekin, Banda Basotti musika talde erromatarrek partaideekin, harreman estua dute Beltzak-Ostadar taldeko kideetako batzuek eta errugbi eskolakoek Banda Basotti rock taldearen disko berrian abestu dute.

Beltzak-Ostadar taldeko kideek harreman estua dute Banda Basotti talde erromatarrarekin. Esate baterako, Italiako taldeak iazko Uztailaren 8an, Pasai Antxoko San Fermin jaietan, Beltzak-Ostadar-Jalai Errugbi eskolako kamiseta jantzita eman zuten kontzertua.

Egun Banda Basotti taldea Garateko estudioan dago disko berria grabatzen eta Beltzak-Ostadar-Jalai errugbi eskolako gaztetxoak gonbidatu dituzte hauekin abestera.

Esperientzia polita izan zen grabaketa azteazkenean, urtarrilaren 18an. Taldeko hogeitahogei bat haurrek abestu zuten euskara eta italiarrez.

Gabonetako otarra

Bestalde, Beltzak-Ostadar taldeak Gabonetako otarra banatu du. Pilar Ibarzabal eta Xabier Otaegi "Txirri" bikoitek eskuratu du aurten hainbat produktu zituen saskia.

Abenduaren 21eko ONCEko zozketan ateratako 82.466 zenbakiak eman dio bikoteari saria. Hainbat produktu ziren otarrean, okela, telebista bat eta Arzak eta Txixarron afariak ere bai.

Beltzak Ostadar taldeak eskerrak eman nahi dizkie babesleei eta otarretan parte hartu duten guztiei.

Zozketa honen bitartez, errugbi eskolarako dirua jaso du taldeak. •



Banda Basotti taldearen diskoaren grabaketan izan ziren Beltzak-Ostadar-Jalai eskolako gaztetxoak. Argazkiak: BELTZAK-OSTADAR



Jalai tabernak eta Balerdi harategiak jarritako produktuak eman zizkioten Pilar Ibarzabal eta bere senar Xabier "Txirri" Otaegiri.



ZATOZ
TXOTX EGITERA!

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

20€ MENUA ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

ASTEAZKENETAN "OTXOTEA"

ENKARGUZ ESKATU DAITEZKEENAK:
BAKAILUA SALTSAN
WAGYU TXULETAK
SAHIESKIA

EGUNERO IREKITA ASTELEHENETIK LARUNBATERA ARTE, EGUERDI ETA GAUETAN.
IGANDEA ITXITA.

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxe: 943 552292
ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com